



AL HAYAT MEDIA CENTRE | AFP

IKUSMIRA

GALESEN MEDIKUNTZA IKASI BEHARREAN, «JIHADA EGITERA»

Islamaren oinarritzko kontzeptua da «jihad» edo «Jainkoaren bideko ahalegina», Wikipedia entziklopediak esplikatzen duenez. Kontzeptu hori ulertzeko modu ezberdin asko daude ordea. Irudian ISIS Irakeko eta Sor-taldeko Estatu Islamikoko hiru kide ageri dira, Al-Hayat Media Centre webguneak azaldu moduan. Erdikoa Abu

Muthanna al-Yemeni da. «Sirian borrokan ibili ondoren, Irakera goaz Alaren laguntzarekin borrokatzera, eta gero Jordaniara eta Libanora arazorik gabe heltzeko aukera izango dugu», dio pasa den asteburuan plazaratutako bideoan. Mendebaldean bizi diren musulmanei dei egin die bideoan euren borrokarekin bat egin dezaten. Ahmed Muthanna Cardiff Galesko hiriburuan bizi da. Telebistan ikusi zuen irudia. Berehala ezagutu zuen Nasser semea. Berak azaldu du 21 urte dituela eta Medikuntza ikasteko asmoa zuela. Beste seme batek ere ISIS taldekoen «jihadarekin» bat egin eta Siriarako bidea hartu zuen. joseangel.oria@gaur8.info